

BAO/EGOITZA ELEKTRONIKOA/WEBUGNEA

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN EBAZPENA, 2019KO EKITALDIRAKO MERKATARITZA-ZERBITZUAK EMATEKO TARIFAK BERRIKUSTEARI BURUZKOA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak 2018ko abenduaren 13an egindako bileran, Bilboko Portuko Agintaritzak ematen dituen merkataritza-zerbitzuei dagokienez indarrean dauden tarifen eta Zuzendaritzaren txostenaren berri eman da. Txosten horren eduki xehea berresten du ebazpen honek. Horrenbestez, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Estatuko Portuei eta Merkataritzako Marinari buruzko Legearen testu bateginaren 246.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako gobernu-organoak aho batez honako erabaki hauek hartu zituen aipatutako bileran:

1. - Onestea 2019ko ekitaldirako ere, orokorrean, bere horretan uztea Bilboko Portuko Agintaritzak ematen dituen merkataritza-zerbitzuei indarrean dauden tarifak. Hori guztia uraren eta energia elektrikoaren hornidurako tarifetan egon daitezkeen eguneraketak gorabehera, estatuko eta hornitzaileen eguneraketen portzentaje berean, eguneraketa egokiekin, egingo direnak.

2.- Erabaki hori argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bilboko Portuko Agintaritzaren webgune korporatiboetan eta egoitza elektronikoa.

Jendea jakinaren gainean egon dadin argitaratu da, Santurtzin, 2018ko abenduaren 13an.

O.E.: Lehendakaria,
Ricardo Barkala Zumelzu

Idazkaria,
Juan Carlos Verdeal Pinto